



**Arartekoaren 2020R-514-18 Ebazpena, 2020ko urtarrilaren 10ekoa. Horren bidez, diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradun izateko eduki ekonomikoko eskubide bat baliarazteko baldintza eta betebeharraren interpretazioan emakumeek jasaten duten indarkeria matxista kontuan hartu dezala eta gizarte zerbitzuekin beharrezko koordinazio-neurriak aurreikus ditzala eskatu zaio Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari.**

### Aurrekariak

1. Arartekoak antzeko helburua duten kexa asko izapidetu ditu azken urteotan, zehazki, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diru-sarrerak bermatzeko errenta (aurrerantzean DSBE) eta etxebizitzarako prestazio osagarria (aurrerantzean EPO) jasotzeko eskubidea etetearekin, azkentzearekin, ukatzearekin edo ez berritzearekin desadostasuna azaltzen dutenak; betiere, aipaturiko prestazioetarako eskubidea eskuratu eta mantentzeko araudian aurreikusitako *"eduki ekonomikoko eskubide bat ez baliatzeko"* betekizunari eta betebeharrari buruz egiten duen interpretazio zabala oinarri gisa hartuta.

Arlo honetan bildutako espedienteetan bizikidetzaren unitate gehienak guraso bakarrekoak dira, adingabeekin ardurapean eta judizialki ezarritako guraso eta seme-alaben arteko neurriekin. Horien artean, mantenu-pentsioak nabarmentzen dira, seme-alaba komunak gurasoek bete ez dituztenak. Era berean, beren oinarritzko beharrezkoak betetzeko zailtasun handiak dituzten bizikidetzaren unitateak dira; izan ere, pobrezia-arrisku handiena duten herritar taldeetako bat baitira, ezin dutelako jaso beste gurasoak mantenu-pentsioak ordaintzeak ekarriko lukeen laguntza. Horregatik eskatu ohi dute DSBE/EPO, familiaren funtsezko gastuei aurre egiteko, araudian aurreikusitako baldintzak beteta.

Arartekoak kexak izapidetzean antzeman duen arazoa da Lanbideek DSBE/EPO prestazioen titular diren emakumeei eskatzen diela auzitegietan sistematikoki salatu dezatela ez dizkietela ordaintzen mantenu-pentsioak, maiatzaren 26ko 147/2010 Dekretuaren 31. artikuluan aurreikusitako betekizuna betez:

*"2.- Baldin eta eskatzaileak edo haren bizikidetzaren unitateko kideek baliatu ez dituzten eskubide ekonomikoak hartzeke izango balituzte, udalak<sup>1</sup> eskatuko dio eskatzaileari espedientearen instrukzioa amaitu aurretik bere eskubideak baliatu ditzala, indarrean dauden legeetan ezarritakoaren arabera. Ezkontzako bizikidetzaren, edo horren baliokidea, eten egin dela egiaztatzen*

<sup>1</sup> Kontuan izan maiatzaren 26ko 147/2010 Dekretua (abenduaren 23ko Legea garatzen duen Dekretua) ez dela egokitu azaroaren 24ko 4/2011 Dekretuak ekarri zituen aldaketei; hortaz, udalari egindako erreferentzia Lanbideri dagokio, erakunde kudeatzaile gisa.



*den kasuetan mantenu-eskubidea sartuko da aipatu eskubide ekonomiko horien barne".*

Lanbideren arabera, mantenu-pentsioaren aldizkako erreklamazio hori ez egiteak *"eduki ekonomikoko eskubideak baliarazteko"* baldintza eta betebeharra ez betetzea dakar, eta, beraz, eskaera ukatzea edo DSBE/EPO prestazioa jasotzeko eskubidea etetea/azkentzea erabaki du, prozedura judizialari dagozkion eta ebazpen honetan aztertzen diren beste inguruabar garrantzitsu batzuk kontuan hartu gabe.

Lanbidek aurreko paragrafoan aipatutako interpretazioan oinarrituta eskaera ukatu, eten edo azkentzen badu, onuradun zirenek ezingo dituzte jaso beren oinarrizko beharriari aurre egitera bideraturiko DSBE/EPO prestazio ekonomikoak. Horretaz gain, askotan, urtebetean berriz eskatzeko aukera ukatzen zaie. Horri, zenbait espedientetan, bi prestazioen kontzeptu gisa bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra gehitzen zaio, lehenago ordaindutako prestazioak bidegabekotzat jotzen delako, ez baita betetzen arestian aipatu den 147/2010 Dekretuaren 31. artikuluan aurreikusitako betekizuna, Lanbidek interpretatzen duen bezala.

2. Testuinguru orokorrean, Arartekoak, beste alderdi batzuekin alderatuta, nabarmendu eta bereizi beharreko elementutzat jotzen ditu, genero-indarkeriaren biktimak izan diren emakumeen edo babesteko aginduak daudenez genero-indarkeriaren biktimak direla egiaztatuta duten emakumeen kasuak (Fiskaltzaren kalifikazioa edo baldintza hori egiaztatzen duten epaiak); zenbait kasutan beren seme-alabekin batera. Egiaz, genero-indarkeria egoera horiek askotan egiaztatzen dira espedientean administrazio publiko desberdinetako (Ertzaintza, Osakidetza, Lanbide, udaletako gizarte zerbitzuak...) dokumentuen bidez; ez bakarrik dokumentu judizialen bidez. **Zaugarritasun eta arrisku-egoera handieneko testuinguru horretan, askotan zaila, edo ezinezkoa, da bikotekide ohi eta erasotzaileari pentsioa ordaindu dezala eskatzea, eta testuinguru horretan, Lanbidek (arestian esan den bezala) aldian-aldian ordaindu gabeko pentsioak erreklamatzeko eskatu die adingabeak ardurapean dituzten genero-indarkeriaren biktimak diren emakume horiei.**

Egoera horren aurrean, kexagile horietako askok, gurasoak behin gutxienez mantenu-pentsioak ez dituela ordaindu judizialki salatu ondoren, egiten ez jarraitzeko salbuespena justifikatzen duen txosten bat eskatu ohi diete gizarte zerbitzuei, Lanbideren 2017ko maiatzeko Irizpideen Dokumentuko 9.2 atalean jasotzen den bezala.

Hala ere, askotan, udaletako gizarte zerbitzuek ez diete beren eskaerei erantzuten eta ez dute egiten kexagileak eskaturiko txostena, lan gehiegi





dutela argudiatuz edo, beste barik, aipaturiko txostena egitea ez dela beren eginkizuna argudiatuz.

Beste kasu askotan, ordaindu gabeko pentsioak gauzatzeko eskaera aurkeztu ez izanak berari egotzi ezin zaizkion arrazoiekin du zerikusia; esate baterako, ofiziozko txandan egokitu zaion abokatuaren jardunarekin edo inguruabarrekin edo erabaki judizialekin, salatua desagertuta dagoelako. Beste modu batera esanda, bide judizialera jotzeko, dohaineko justizia eskaera edo abokatu-laguntza eskaera aurkeztu behar dute. Gero, familia-banaketarako, dibortziorako edo guraso eta seme-alaben arteko neurriak gauzatzeko eskaerak beren ibilbide judiziala dute eta prozedura judizialen baldintzak bete behar dituzte; esate baterako, salatuari (kasu askotan desagertuta egon ohi dena) jakinarazpena helarazteko beharra, eta hori, argi eta garbi, oztopo larri bat da agintaritzaren judizialen jarduketara bizkor baterako.

Hortaz, ebazpen honen bidez, Arartekoak antzemandako egoerak azpimarratu nahi ditu; horietan, Lanbidek eduki ekonomikoko eskubide bat baliarazteko baldintza betetzeko darabilen zehaztasunaz gain, eskakizun hori bizikidetzaren unitateko genero-indarkeria testuinguru batean gauzatu behar da.

Lanbideren datuen arabera, egoera horrek genero-indarkeriaren biktimak diren eta Euskadin DSBE jasotzen duten 1.406 emakumeri eragiten die. Horien artean, 500 emakumek lehenengo aldiz jaso zuten laguntza 2018an. Laburbilduz, **gaur egun prestazio hori jasotzen duten 53.000 pertsonen % 2,7**, Lanbideren datuen arabera<sup>2</sup>.

3. Hain zuzen ere, jasotako zenbait kexaren adibide gisa, adierazi den bezala, kexagileek eta, batzuetan, beren seme-alabek, egiaztatuta zuten edo dute genero-indarkeriaren biktima izaera, eta beste kasu batzuetan, bizitako genero-indarkeriaren egoera bermatzen duten txostenak dituzte. Era berean, zenbait kasutan, beren bikotekide ohien kontrako urruntze-aginduak daude, eta beste kasu batzuetan, Ertzaintzak 24 orduz eman die eskolta. Kasu horietan, **emakume horien zein adingabeen kontrako indarkeria-arrisku egoera agerikoa da eta behar bezala egiaztatuta dago.**

Hain zuzen ere, kexa-espeditente jakin batzuetan, bere bikotekide ohiari egindako mantenu-pentsioaren erreklamazioa atzeratu egin zen jasandako indarkeria egoera berpiztearen beldurrarengatik. Izan ere, horrela gertatu da hainbat egoeratan, mantenu-pentsioa gauzatzeko beste eskaera bat aurkeztu ostean, seme-alaba komunen aitak emakume horietako batzuk eraso izan baititu, fisikoki zein emozionalki.

---

<sup>2</sup> Beatriz Artolazabal Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika sailburuak 2019ko azaroan Eusko Legebiltzarrean egin zuen agerralditik jasotako datuak.

Azterturiko kasuetan, gainera, gurasoek ez dituzte betetzen orokorrean judizialki berretsitako guraso eta seme-alaben arteko neurriak, eta beste zenbait kasutan, auzi-iheslaritzat jo izan dira edo desagertu egin dira, herrialdean zein hemendik kanpo.

Azken batean, kexa-espeditente gehienetan, Lanbidek DSBE eskubidea mugatzeko erabakia hartu aurretik, entzunaldi-izapide egokiaren bidez eduki ekonomikoko eskubideak baliarazteko baldintza bete dela egiaztatzeko eskatu duen arren, erakunde autonomiak ez ditu hartu kontuan kexagileek emandako alegazioak (doako justizia-eskaera zein genero-indarkeriaren biktima izazeraren egiaztapena); erakunde autonomoak mantenu-pentsioaren kontzeptu gisa ordaindu gabeko zenbatekoak egoitza judizialean aldizka erreklamatzeko eskakizun zorrotza oinarri gisa hartuta.

4. Arartekoak bide eman die arazo horri buruzko kexa-espeditenteei, eta jarduteko modu horri buruzko informazioa eskatu dio Enplegu eta Gizarte politiketako Sailari.

Adierazi beharra dago, Arartekoak egindako jarduketa horien guztien erantzun gisa, Lanbidek ez duela onartu erakunde honen ohar, iradokizun edo gomendiorik.

Jarraian, Lanbidek honako gomendio honen xede den gaiari buruzko espeditentetan bideratutako lankidetzak-eskaerei emandako erantzunen zenbait laburpen aipatzen dira:

*“- Idazkiaren bigarren puntuari dagokionez, errekurtsogilearen baldintzak ezin dute justifikatu adingabe bati dagozkion mantenu-eskubideak ez erreklamatzeari. Hau da, tratu txarren eta mahatxuen ondorioz ematen zaizkion babes-neurriek ez diote eragozten beharrezko erreklamazioak egitea haren alaba adingabeari dagozkion eta 2007an aitortu zitzaizkion eskubideak baliarazteko.*

*Illo horretatik, legeria zibil eta prozesalak ezartzen du neurri horiek gauzatzeko eskaera alde batek egin behar duela. Bestalde, DSBEa arautzen duen araudiaren arabera, prestazioa jasotzeko eskubidea izateko baldintzetako bat da dagozkion eskubide ekonomiko guztiak baliaraztea, inolako salbuespenik gabe, beraz DSBEa iraungitzeko ebazpena legekotasun-printzipioaren arabera eman da”<sup>3</sup>.*

<sup>3</sup> Lanbideko zuzendari nagusiaren txostenaren zati baten hitzez hitzeko transkripzioa, erakunde honek bidalitako informazio-eskaerari erantzunez. Kexa-espeditente horren izapidetzearen ondorioz, honako iradokizun hau igorri zen, eta erakunde autonomoak ez du berau onartu:

**Arartekoren 2019S-2469-18 Ebazpena**, 2019ko maiatzaren 17koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzako prestazio osagarria iraungitzeko ebazpen bat berrius dezala, eskubide edo prestazio ekonomiko

*“- 2918/X/Xean, XX/2017 epaiaren ez betetzea erreklamatu zen bide penaletik (Lanbidek bide zibiletik egitea gomendatzen du); eta 2.250 ordaintzea, ez-ordaintzeagatik, eta 675, interesengatik. Orduz geroztik, ez da inolako aurrerapenik egin: prozesuari hiltzen utzi zaio, eta ez dira eskubide ekonomikoak gauzatu”.*

*Uste da, antzeko egoeran dauden beste hainbatek egiten duten eran, bere abokatuaren bidez bideratu beharko lukeela prozesua, epaitegiak erabaki dezan kausa zehatz honekin egin nahi denarekin aurrera jarraitu daitekeen ala ez (elikagaiak ez ordaintzeagatik epaia gauzatzeko erreklamatzeko), epai edo auto baten bidez ebatzi dezan, dagokionaren arabera”.*

*“- Lanbideri dagokio baloratzea ea interesdunak, beste alderdiak neurriak aldatzeko prozedura hasi duen unean, formalki bere eskubide ekonomikoaren defentsa hasi duen edo ez. Izan ere, DBE prestazioaren hartzalle izateak betebeharren araubide bat dakar, eta halen bete beharrak dira, 18/2008 Legearen 19. artikulua, eta 147/201 O Dekretuaren 12. artikulua ezartzen dutenaren arabera”. [...]*

*“Mantenu-pentsiorako eskubidea baliatzeko modua 9.3.1. irizpide teknikoan ezarri zen (2017ko maiatzean emana eta Gardentasuna, informazio publikorako sarbidea eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7.a) artikulua aginduta argitaratua). Horrek banaketa, dibortzio edo neurriak aldatzeko prozedura judizialen testuinguruan demanda jartzea exijitzen du, bertan agerrarazteko, alderatzeko edo kontrastatzeko bi alderdien jarrerak, kontraesate-printzipioari jarraiki (mantenu-pentsioa ordaintzera behartuta dagoen alderdiaren egoera ekonomikoa egiaztatuz); kontraesate-prozedura horretan, norberaren jarrerak erakutsi ostean, prozedura amaitzeko akordio batera iristea ahalbidetzen da. Akordioa organo judicial batek berretsi behar du (eta, hala badagokio, Fiskaltzaren aldeko txostenarekin).*

*DBE jasotzen duen alderdiak haren interesen arabera ebazpenik onena jaso behar du, eta egoera horretatik aurrera OBE eskatu edo berrikusi”. [...]*

*“Kasu honetan, kexa aurkezten duena genero-bortizkeria egoera bati aurre egin beharrean den emakume bat da, bi urteko urruntze agindua duena, eta gainera bizikidetzaren unitate horretan adingabeko bi pertsona bizi dira. Horiek horrela, adierazi behar da organismo honek objektibotasunez eman behar diela zerbitzua interes orokorrej, eraginkortasun, hierarkia, deszentralizazio,*

---

bat erabiltzeko betebeharra ez delako bete, bere genero-indarkeriako egoera, osasun, polizia eta judizio txostenen bidez egiaztatuta dagoena, eta adingabearen interes gorenerako eskubidea behar bezala haztatzen badira.

Eskuragarri hemen: [http://ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0\\_4732\\_3.pdf](http://ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_4732_3.pdf)

*deskonzentrazio eta koordinazio printzipioak aintzat hartuz, eta erabat men eginez Konstituzioak, Legeak eta Zuzenbideak agintzen dutenari, 40/2015” (Dekretuaren 3. artikulua).*

*“-Genero-indarkeriaren blktimek DSBEa jasotzeko bete behar dituzten baldintzen salbuespenen artean, Lanbidek aurreikusten du, salbuespen kasu bakan batzuetan, mantenu-pentsioa ez erreklamatzeko aukera egon daitekeela, beU ere Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak hori arrazoitzeko txostena egin badu. Hala ere, orokorrean, eskatu egin beharko dute. Kasu honetan, interesdunak ez zuen Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen txostenik aurkeztu eta, beraz, Lanbidek laguntza etetea erabaki zuen, baila eskubide hori baliatu ez duen denboran jaso behar ez zituen zenbatekoak erreklamatzera ere”.*

- 5.- Kexa horiek azaleratzen duten arazoa aztergai eta eztabaidagai egon da Arartekoko langileek Lanbiderekin egin izan dituzten hainbat bileratan.

Ondorioz, ebazpen honek Lanbidek guraso bakarreko bizikidetzak unitateentzako eta beren kargura adingabeak dituzten unitateentzako onarturiko DSBE/EPO prestazioak eteteko/azkentzeko/ukatzeko ebazpenak zuzenbidearekin bat datozen aztertzen du, araudian jasotako "eduki ekonomikoko eskubideak baliarazteko" betebeharra eta/edo baldintza betetzen ez dutela uste baita; izan ere, ez da aurkeztu sistematikoki gurasoek mantenu-pentsioak ez ordaintzearen ziozko salaketa judizialik eta bi prestazioen kontzeptu gisa bidegabe jasotako zenbatekoen erreklamaziorik.

### **Gogoetak**

1. DSBE/EPO prestazioen arloko gaur egungo araudiak aurreikusten dituen betebeharren artean, hauxe eskatzen du: *“titularrari edo bizikidetzak-unitateko edozein kideri legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea, prestazioak irauten duen aldi osoan”*. Betebehar hori gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 19.1.b) artikuluan zein diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12.1.b) artikuluan arautzen da.

Era berean, baldintza gisa ezartzen da prestazioak jasotzeko eskubidearen titulartasuna eskuratu eta mantentzeko, 147/2010 Dekretuaren 9.8 artikulua arabera.

Bestalde, azaroaren 24ko 4/2011 Legeak aldatutako 18/2008 Legearen 28.1.h) artikulua ezartzen du diru-sarrerak bermatzeko errenta arrazoi honengatik iraungiko dela: *“lege honen 19.1.b) artikuluan aurreikusitako betebeharra ez betetzeagatik”*.

Horren azpian dagoen ideia eskubidearen eraketa baino ez da; hala, 18/2008 Legearen 13.1 artikuluari jarraituz, hauxe da horren ezaugarri nagusia: *"...indarrean dagoen legerian ezarritako era guztietako errekurtsio eta prestazio ekonomikoen izaera subsidiarioa eta, hala badagokio, osagarria, titularrari edo haren bizikidetzaren unitateko edozein kideri dagokiena..."*.

2. Arartekoaren ustez, **Lanbidek modu zabalean interpretatzen du eskakizun hori eta baldintza honen edukiari legelariaren nahia gainditzen duen irismena ematen dio**; hori horrela, zenbait jarduketa gauzatzea eskatzen du, aipaturiko eskakizuna betetzat jotzeko; emakumeek pairatzen duten indarkeria-testuingurua, pentsioak ordaindu behar dituen gurasoaren jarrera eta dagoeneko hasita baina iraungi gabe dagoen ekintza gorabehera.

Alde horretatik, argi geratzen da erregelamenduaren letrak arauan zehaztu ez diren betekizun gehigarri berrietara duen hedadura, Lanbidek betekizun horren edukiari buruz egin duen interpretazioarekin. Interpretazio hori zehatz-mehatz jasota dago, alde batetik, 2017ko maiatzean<sup>4</sup> eguneratutako irizpideen dokumentuan, eta, bestetik, *"eskubideak baliatzeko betebeharraren berri ematen duen agirian"*. Azken hori bi prestazioen pertsona eskatzaileei jakinarazten zaie DSBE/EPO jasotzeko eskubidea aitortzeko eskaera gauzatzerakoan; horren bidez, konpromisoa hartzen dute eskuratu dezaketan eduki ekonomikoko eskubide eta prestazio guztiak erreklamatzeko.

Agiri horretan, *"eduki ekonomikoko eskubide"* posibleen zerrenda bat jasotzen da, baina ez da zerrenda zehatz eta baztergarri bat; ohikoenak adierazten ditu, besteak beste: *"Mantenu-pentsioa edo konpentsazio-pentsioa erreklamatzeko"*, Lanbidek 9. atalean zehar garatzen duen alderdia.

Irizpideen dokumentu horrek, bestalde, eduki ekonomikoko eskubideak baliarazi diren egiaztatzerako orduan, zenbait jarduketa gauzatzea eskatzen du.

*"- Ordaintzeari utzi eta bi hilabete igaro direla, doako justizia eskatzera presatuko da interesduna, edo, hala badagokio, epaia betearazteko demanda aurkeztera.*

*- Demanda aurkeztu eta epaia eman artean berriz ere ordainketaren bat egiteari uzten bazaio, epaia eman artean ordaindu gabeko zenbateko guztiak ordaintzeko eskatu beharko du demandatzailearen abokatuak; beste modu batean esanda, demanda bat indarrean dagoen bitartean, ez da derrigorrezkoa izango demanda gehiago jartzea.*

---

<sup>4</sup> Eskuragarri hemen: <https://www.lanbide.euskadi.eus/db/-/informazioa/erizpideak/>



*- Epaiaren ondoren berriz ere ordainketaren bat egiteari uzten bazaio, bi hilabeteren buruan beste demanda bat jartzera presatuko da interesduna berriro”.*

Aitzitik, 147/2010 Dekretuaren 31.1.a) artikulua, Lanbidek, eskubide horiek osorik baliatu direla noiz egiaztatuko duen ezartzen du:

*“Ebazpen judizialak jadanik onetsi dituen baina jaso ez diren eskubideen edo prestazioen kasuan, horiek baliatu direla ulertuko da horiek eman behar dituen pertsonari dagokion ez-betetzeagatiko dagokion ebazpen judizialaren betearazpen-intzidenteari hasiera eman zaiola egiaztatzen denean”.*

Legezko xedapenean kasuko ebazpen judizialaren betearazpen-gorabehera abiarazi dela egiaztatu behar dela ezartzen da; Lanbideren irizpideetan, berriz, modu erregularrean betearazpen-eskaerak aurkezteko betebeharra ezartzen da.

Horrenbestez, erakunde honek egiaztatu du Lanbidek kexagileei eskatzen diela ordaindu gabeko mantenu-pentsioak erreklamatzeko jardun judizialak egin ditzatela, sistematikoki, zenbait egoera bereizi gabe; hala nola, bizikidetzaren unitatean indarkeria matxista egoera bat egotea, ekintza judiziala iraungi ez izana edo beren borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik prozedura amaitzea ezinezkoa izan izana.

Alderdi hori erakunde honetako hainbat ebazpenetan aztertu da, esate baterako, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen 2017ko diagnostiko-txostenean<sup>5</sup>; horren 5.3.3.1 atalean, *“Dibortzioko, banantzeko edo guraso eta seme-alaben arteko neurriak ezartzen dituen epai judizialean aitortutako elikagaien pensioa ez egikaritzeari”* buruzkoan, honako hau ezartzen zen: Lanbide manuairen interpretazio zabala egiten ari zela; izan ere, erakunde horrek, askotan, prestazioaren onuradunei eskatu izan die beren aukeretatik kanpo geratzen diren jarduketak egiteko. Horregatik, Arartekoak titularrak arduraz jokatu duen haztatu beharko lukeela iradoki zion Lanbideri, eskubidea etetea edo iraungitzea dakarren edozein erabaki hartu aurretik. Aurretik esan den moduan, hartzailearen erantzukizun-esferarekin zerikusirik ez duten arrazoiak dira guraso eta seme-alaben arteko neurriei buruzko epai judiziala egikaritzea eragozten dutenak.

---

<sup>5</sup> Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituenena, 2017. Eskuragarri hemen: [http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0\\_4199\\_3.pdf](http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_4199_3.pdf)



3. Bestalde, azpimarratu behar da **erakunde publikoak zenbait salbuespen aurreikusten dituela eskakizun horretarako, 9.2 atalaren amaieran jasotakoak. Bertan ezartzen denez, betebeharr/betekizun hau ez da betegabetzat joko honako kasu hauetan:**

*"... oinarrizko gizarte zerbitzuen txosten arazoitu bat dagoenean, interesdunek beren eskubide ekonomikoak baliarazteko beharrezkoak diren ekintzak gauzatzeko duten ezintasuna (ulertzeko eta erabakiak hartzeko gaitasunaren edo borondatearen mugaketa) argi eta garbi egiaztatzen duena (adibidez, eskizofrenia, dementzia, genero/etxeko indarkeria, gaixotasun larria...). Oinarrizko gizarte zerbitzuen txostenari balioa eman ahal izateko, agintaritzak eskudunaren txostena ere egon behar da, egoera hori egiaztatzen duena (txosten medikoa, judiziala eta abar). Salbuespen hori aplikatzearekin batera, jasotzaileak Oinarrizko Gizarte Zerbitzura aldizka joateko konpromisoa hartu beharko du, jarraipena egin diezaioten".*

Nolanahi ere, salbuespen-egoera hori egiaztatzeko duen eragin eta garrantzia gorabehera, zenbait oinarrizko gizarte zerbitzuek ez dihardute aipaturiko txostenak egiten, eskumen-arrazoiak eta lan-karga handia argudiatuz; orain arte, gainera, ez da aurreikusitako aipaturiko egoerak egiaztatzeko bestelako frogabiderik.

Azpimarratu behar da, halaber, gizarteratzeko eta diru sarrerak bermatzeko Legea aldatzen duen azaroaren 24ko 4/2011 Legeak arau bidez garatzeko zain jarraitzen duela, lehenengo azken xedapenean ezarritako aurreikuspena gorabehera:

*"Araudia garatzea.*

*Lege hau onartu eta hurrengo hamabi hilabeteko epean, Eusko Jaurlaritzak hura garatu eta ezartzeko beharrezko xedapen guztiak eman beharko ditu".*

Aurreko Legeak garrantzi handiko aldaketa ekarri zuen, DSBE kudeatzeko ahalmenak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari eman baitzitzaizkion, eta, hori dela eta, beharrezkoa zen araudi bidez garatzea, baina ez da halakorik gertatu.

Hori dela eta, 2017ko diagnostiko-txostenean<sup>6</sup>, erakunde honek, 47. gomendioan, zenbait proposamenen jatorria balioztatu behar zela adierazi zuen. Hizpide dugun kasuan honako proposamen hauek nabarmentzen dira:

---

<sup>6</sup> *Op. Cit.*, 142.-143. orri.



*“• Gizarte-zerbitzuen txostenek Lanbidek kudeatzen dituen prestazio ekonomikoen espedienteetan izango duten garrantzia hitzartzearen garrantzia, bai betekizunak betetzearen interpretazioari dagokionean, bai prestazioak etetea edo iraungitzea adosten duten ebazpenei dagokienean.*

*• Txosten sozialek jaso beharko luketen edukia adostearen garrantzia, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemarako baliagarriak izan daitezen”.*

Gizarte zerbitzuei esparru horretan egokitu lekiokoen erantzukizunari eragin gabe, Lanbidek ere ez die eskatu udaletako gizarte zerbitzuei aipaturiko txostenak egiteko, gutxienez, Arartekoak aztertutako kexa-espedienteetan; eta hori, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 79. artikuluan ezartzen den araudi-aurreikuspena gorabehera.

*“1. Prozedura ebazteko, legezko xedapenek nahitaezkoztat jotzen dituzten txostenak eskatuko dira, bai eta ebazteko beharrezkoztat jotzen direnak ere. Era berean, txosten horiek eskatzen dituen manua aipatuko da, edo, hala badagokio, horiek erreklamatzeko komeni dela adieraziko da”.*

4. Seme-alaben arteko mantenu-pentsioa jasotzeko eskubidea Espainiako konstituzioaren 39.3. artikuluan jasotzen da:

*“Gurasoek ezkontzaren barne ala kanpo izandako seme-alabei era guztietako laguntza eskaini behar diete, adingabeak direnean eta zuzenbidean hori eskatzen den gainerako kasuetan”.*

Ondorioz, eta Kode Zibilaren 92. artikuluan ezarritakoaren arabera, gurasoak dira seme-alaba adingabeei elikagaiak eman behar dizkietenak, banatu, dibortziatu edo ezkontza-harremana indargabetu ondoren. Era berean, Zigor Kodearen 227.1. artikulua arabera, mantenu-pentsioak ez ordaintzearen delitua sortzen da.

*“Bi hilabetez jarraian edo jarraitasunik gabeko lau hilabetez bere ezkontide edo seme-alaben aldeko edozein prestazio ekonomiko (judizialki onartutako hitzarmenean edo ebazpen judizialean legezko banaketaren, dibortzioaren, ezkontza-deuseztapenaren, filiazio-prozesuaren edo bere seme-alaben aldeko elikadura-prozesuaren kasuetan) ordaintzeari uzten dionari hiru hilabetetik sei hilabetera arteko espetxealdi-zigorra edo sei hilabetetik 24 hilabete arteko isuna ezarriko zaio”.*

Datu interesgarri gisa, Zigor Kodea osatzen duten delituen artean, azken urteetan estatistika judizialean gehien hazi den delituetako bat mantenu-



pentsioa ez ordaintzearena da. Delitu mota hori, Zigor Kodearen 228. artikuluan ezartzen den bezala, honako kasu honetan bakarrik jarraituko da: *“eragindako pertsonak edo haren legezko ordezkariak salatu badu. Pertsona hori adingabea, babes berezia behar duen desgaitua edo babesgabetua denean, Fiskaltzak ere salatu ahal izango du”*.

Salaketa gehienak adingabeak ardurapean dituzten amek jartzen dituzte, pobrezia-arriskurik handieneko biztanle-taldea dena, nazioarteko eta estatu mailako gizarte-eragile nagusien txosten eta estatistiken arabera.

**Horrez gain, Zigor Kodearen 131.1. artikuluan ezarritakoaren arabera, pentsioak ez ordaintzeko delituak bost urtetan preskribatzen du, eta delitua izateari uzten dionetik hasten da zenbatzen, iraunkorra delako, Zigor Kodearen 132.1.1. artikuluaen arabera. Hau da, pentsioaren ez-ordainketak jarraitzen duen bitartean, delitua ez da preskribatu.**

Era berean, aztertutako kasu askotan, gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak erabakitzen dituen epai judizialek eratorritako akzio betearazlea ez zen iraungi Lanbidek kexagileen prestazioetarako eskubidea azkendu zuenean. Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 518. artikuluan hauxe adierazten da:

*“Transakzio judiziala edota prozesuan, arbitraje-ebazpenean edo bitartekaritza-akordioan lortutako akordioa onartzen duen betearazpen-akzioa, auzitegiaren epaian edo ebazpenean edo idazkari judizialaren ebazpenean oinarritutakoa, iraungi egingo da, baldin eta epaia edo ebazpena irmo bihurtu denetik bost urteko epean demanda betearazle egokia aurkeztu ez bada”*.

Mantenu-pentsioak ez ordaintzearen zigor-delitua aldatu da azken urteetan, pentsioak ez ordaintzeari buruzko gizarte-errealitatea eta txosten eta estatistika judizialak ikusita. Era berean, aldatu egin da ez-ordaintze horren ikuspena, egiturazko desberdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren zeinu bat gehiago bezala: indarkeria ekonomikoa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak honela definitzen duena:

*“Emakume baten eta, halakorik bada, emakumearen seme-alaben edo ekonomikoki haren mende daudenen ongizate fisikoa edo psikologikoa borondatez eta arrazoirik gabe urratzeko ekintzek osatzen duten indarkeria. Horren barnean sartzen da, halaber, norberaren baliabide ekonomikoak, familiakoak edo bikotekideenak xedatzeko aukerak mugatzea”<sup>7</sup>.*

---

<sup>7</sup> Emakunderen 2019ko urteko txostena, “EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoak: analisia eta interpretazioa” (datu estatistikoak 2018), EDE Fundazioko Gizarte



5. Arestian adierazi den bezala, ordaindu gabeko mantenu-pentsioei buruz aipatutakoari indarkeria matxistako egoerak gehitzen zaizkio, eta horien artean nabarmentzen da (hemen aztertzen ari garenaren arabera) bikotekideak edo bikotekide ohiak egindakoa, Zigor Kodeak genero-indarkeriatzat kalifikatua. Horrek, nazioarteko, Europako, estatuko eta autonomia erkidegoko esparru juridikoarekin bat etorritik, emakumeei eragiten die, modu askotara, emakume izate hutsagatik.

Horren harira, argigarria da emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen erreformaren aurreproiektuak eskaintzen duen emakumeen kontrako indarkeriaren definizioa:

*"Emakumeen aurkako indarkeria matxista giza eskubideen urraketa eta emakumeen aurkako desberdintasunaren eta diskriminazioaren adierazpen bat da, eta emakumeen aurka (neskatoak eta nerabeak barne) gauzatzen den indarkeria oro hartzen du barnean, emakume izateagatik edo neurritz kanpo eragiten dielako, eremu publikoan zein pribatuan. Indarkeria ekintzaz nahiz ez-egitez gauzatu daiteke, eta egiteko bitartekoak fisikoak, psikologikoak zein ekonomikoak izan daitezke, mehatxuak, larderiak eta hertsapenak barne, baldin eta horien ondorioz sufrimendu edo kalte fisiko, sexual, psikologiko, ekonomiko edo ondarezkoa eragiten bada".*

Erakunde honen ustez, beharrezkoa da une honetan berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloko arau-esparrua aipatzea, **botere publikoek indarkeria matxistaren bat jasan duten eta/edo jasaten duten emakumeei eman behar dien tratamendu bereziarekin bat datorren DSBE/EPO prestazioen araudiaren ezarpenaren interpretazio bat** proposatzeko premisa gisa.

Lehenik eta behin, emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta borrokatzeko Europako Kontseiluaren Hitzarmenaren garrantzia azpimarratu behar da, Istanbulen egina 2011ko maiatzaren 11n, eta Espainiak 2014ko martxoaren 18an berretsia (aurrerantzean, Istanbulen hitzarmena). Zehazki, Istanbulen hitzarmenak zenbait betebeharrak ematen ditu indarkeria prebenitzeko, biktimak babesteko eta laguntzeko. Horrela, zenbait irizpide ezartzen ditu, eta ezar daitezkeen neurriak horietan oinarritu beharko liriteke. Zentzu zabalean, emakumearen eta bere seme-alaben inguruabarrak barne hartzen ditu, eta haien giza eskubideak eta segurtasuna aldeztari lehentasuna ematen dio.

---

Ikerketarako Zerbitzuak egina.

Eskuragarri hemen:

[https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia\\_evaluacion\\_informes/es\\_de\\_f/adjuntos/2018\\_informe\\_datos\\_estadisticos.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/es_de_f/adjuntos/2018_informe_datos_estadisticos.pdf)





Horretaz gain, aipaturiko tresnaren 18.4 artikuluan, besteak beste, honako hau eskatzen da:

*"Zerbitzu emateak ez du biktimen borondatearen mende egon behar, legezko ekintza ekiteari edo edozein delitu-egileren aurka lekukotza egiteari dagokienez".*

Hau da, ezinbestekoa da zerbitzu publikoek emakume hauei eta beren seme-alabei emandako arreta eta laguntza haien giza eskubideak aldezteko eta segurtasuna babesteko egitea, eta ez egotea ustezko erasotzailearen aurkako legezko ekintzak hastearen mende. Aipatutako xedapenek mota honetako indarkeriaren biktimak diren emakumeek sentitzen duten beldurra besterik ez dute aitortzen, erasotzailearen aurkako legezko ekintzak ekiterako orduan beldurtu edo blokeatzen dituen. Beraz, hori ez da eragozpena izan behar zerbitzu publikoek emakumeak artatzeko eta babesteko. Horrek emakume horiei laguntzeko bideratu daitezkeen zerbitzu eta prestazio publiko guztiei eragiten die; ez bakarrik indarkeria matxistaren biktimak artatzeko prestazio eta zerbitzuei, herritar guztiengan zuzenduriko zerbitzu eta prestazioei ere eragiten die; esate baterako, DSBERi.

Bigarrenik, emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 45.1 artikuluan, gizarteratzearen esparruan berdintasun printzipioaren ezarpena sustatzeko xedearekin, honako aurreikuspen hau jasotzen da:

*"Euskal herri-administrazioek beharrezko neurriak hartuko dituzte pobrezia eta gizarte-bazterkeriak emakumeengan eragin handiagoa izatearen ondorioei aurre egiteko. Horretarako, alde batetik, genero-ikuspegia txertatuko da pertsona guztiek oinarrizko giza eskubideak erabili ahal izango dituztela bermatzea helburu duten sektore-programetan, eta bestetik, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeen kolektiboetarako zuzendutako programa zehatzak diseinatuko dituzte".*

Lege-agindu horren arabera, botere publikoek berariazko neurriak hartu behar dituzte pobrezia eta feminizazioaren arazoiari aurre egiteko, ekintza positibo bidez eta oinarrizko eskubide sozialen gozamina sustatzeko neurri guztietan generoa txertatuko duen ikuspegi baten bidez. Horrek, zalantzarik gabe, zuzenean eskatzen du Lanbide arlo horretan konpromisoa hartu behar duela.

Bestalde, 4/2005 Legearen erreformaren aurreproiektuak 45. artikuluan 2. atala aldatzea aurreikusten du; honela geldituko litzateke:

*"Euskal herri-administrazioek beharrezko neurri juridikoak eta ekonomikoak bultzatuko dituzte gertakari batzuen ondorioz baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonen baldintzak hobetzeko. Gertakari*

*horiek bi izango dira: batetik, alargun gelditzea, eta bestetik, hitzarmen judizialki onartuan edo ebazpen judizialean ezarritako pentsio osagarriak eta mantenu-pentsioak<sup>8</sup> ez jasotzea. Bigarren hori gertatzeko egoerak hauek izan ohi dira: ezkontza-deuseztapena, legezko ezkontza-banaketa, dibortzioa, izatezko bikotea hausturaz iraungitzea edo filiazio- edo mantenu-prozesua. Gorago aipaturako helbururako, berme-funts bat sortuko dute pentsioak ordaintzen ez direnerako, eta osagarriak eratuko dituzte alarguntasun-pentsio apalenetarako”.*

6. Arestian aipaturiko guztiarengatik, eta eragindako kexa-espeditenteen analisitik eratoritzen den garrantzia bereziko alderdia den heinean, zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonak (genero-indarkeriaren biktima den emakume bat, esaterako) artatzen dituzten **askotariko administrazio publikoen arteko koordinazioa hobetzeko beharra** egiaztatu da, eta, horrek, gaur egun dauden koordinazio-neurrien ebaluazio kritiko bat eskatu du. Hain zuzen, hizpide dugun kasuan, nahiz Ararteko honek jaso dituen antzeko kexetan eta ebazpenetan, aurreko lerroei dagokienez, administrazio publiko batek genero-indarkeriaren biktima den emakume bat babesteko diseinaturiko neurriak ez-eraginkorrak izan daitezkeela, beste administrazio baten jarduketa edo jarduketa-falta dela eta, edo horrekin izandako koordinazio-falta dela eta.

Arartekoak interesgarritzat jotzen du 2017ko diagnostiko-txostenean egindako analisia errepikatzea<sup>9</sup>, honi buruzkoa: *“pertsonen beharrezanezi (bereziki, beste gizarte-zailtasunen artean, adina edo desgaitasuna edo jasan duten indarkeria egoera dela-eta gizarte-bazterkeria egoeran edo zaurgarritasun-egoeran dauden zenbait kolektibori dagokionez) modu integralean erantzuteko lankidetzarako esparru egonkor bat finkatzeko beharra”.*

Interesgarria da, bestalde, gogoratzea genero indarkeriaren kontrako babes integraleko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, zioen azalpenean honela ezartzen duena:

*“Botere publikoek genero indarkeriaren berri izan behar dute. Izan ere, indarkeria hori oinarrizko eskubideen, besteak beste, askatasunerako, berdintasunerako, bizitzeko, segurtasunerako eta gure Konstituzioan aldarrikatutako ez-bereizkeriarako eskubidearen aurkako erasorik bistakoenetakoa da”.*

Era berean, emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen VII. Kapituluko (emakumeen aurkako indarkeriari buruzkoa) 62. artikulua 2. atalean, etxeko tratatu txarren eta sexu-erasoen biktimak

<sup>8</sup> Azpimarratutakoa gurea da.

<sup>9</sup> *Op. cit.*, 104. orri.



artatu eta babesteari buruzkoan, erakunde arteko koordinazioaren harira, hauxe adierazten da:

*“1.- Autonomia Erkidegoko Administrazioak gai honetan eskumenak dituzten gainerako euskal herri-administrazioekin erakunde arteko lankidetzak-akordioak egin daitezzen sustatuko du; horrela, etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak gertatzen diren kasuetan, erantzuna koordinatua eta eraginkorra izango da, eta biktimei laguntza integrala eta kalitatezkoa bermatuko zaie. Era berean, gai honetan eskumenak dituzten gainerako erakundeekin ere lankidetzarako bideak bilatu beharko dira.*

*2.- Lankidetzak-akordio horietan, Autonomia Erkidego osorako homogeenak izango diren jarduketak-irizpideak edo -protokoloak finkatuko dira, era horretako kasuetan dihardutenei zuzenduak. Gainera, mekanismo batzuk ezarriko dira akordiotan, aldeek konpromisoak betetzen dituzten jarraipena egiteko eta ebaluatzeko”.*

Xedapen hori indarkeria matxistaren biktimentzako xedaturiko DSBE-politiken kudeaketan eraginkortasun handiagoa izatea ahalbidetzen duten administrazioen arteko erabakien bidearentzako markotzat jo behar da. Horretarako, ezinbestekoa da prestazio horri dagokionez elkarri eragiten dioten administrazioekin (oinarrizko gizarte zerbitzuak, adibidez) koordinazio eraginkorra egitea eta, horiekin, elkar ulertzeko eta koordinatzeko formulak bilatzea, indarkeria jasan duten edo jasaten duten emakumeak babestu eta laguntzeko baliagarriak izango direnak. Horretarako, neurriak aktibatu beharko liriteke etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. akordioaren<sup>10</sup> testuinguruan (autonomia erkidego mailan onartua 2009an. Akordio horren lehenengo puntuan honako hau azpimarratzen da:

*“Akordio honen helburua dela Euskal Autonomia Erkidegoan etxeko tratu txarren eta sexu indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzen lan egiten duten erakundeen arteko koordinazioa hobetzea; horrela, emakume horiei babes eta arreta osoa bermatzeko, arlo ezberdinetan: osasun arloan, polizialean, judizialean eta gizarte arloan”.*

Ilido beretik, genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituna garatzeko premiazko neurriei buruzko abuztuaren 3ko 9/2018 Errege Lege Dekretuaren bigarren ardatzean koordinazioa hobetzea planteatzen du, bigarren mailako

<sup>10</sup> Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. akordioa, 2009ko otsailaren 3koa.

Eskuragarri hemen:

[https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia\\_coordinacion/es\\_def/adjuntos/2.acuerdo.interinstitucional.cas.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_coordinacion/es_def/adjuntos/2.acuerdo.interinstitucional.cas.pdf)



biktimizazio-arriskua saihesteko eta biktimek erakundeetan duten konfiantza hobetzeko:

*“Genero-indarkeriaren biktimei ematen zaien erantzun instituzionala hobetzea, koordinazioaren eta sareko lanaren bidez. Genero-indarkeriaren aurkako borrokan ardura duten agintari eta erakundeen arteko koordinazio ona ezinbestekoa da emaitza onak lortzeko. Horren ondorioz, erakundeen erantzuna maila guztietan hobetzeko neurriak hartu behar dira, eskura dauden baliabideen erabilera maximizatuz, tokiko eremuan laguntza-baliabideak sustatuz, esku hartzen duten eragileen arteko jarduketa- eta komunikazio-protokoloak hobetuz (bigarren mailako biktimizazio-arriskua saihesteko) eta biktimek erakundeetan duten konfiantza hobetuz”.*

7. Era berean, Arartekoak 2/2015 Gomendio Orokorren (Arartekoarena) edukia errepikatu nahiko luke, hau da, politika publikoetan **adingabearen interes nagusia** aintzat hartzeko betebeharrari buruzkoa; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sistemari dagokionez<sup>11</sup>.

Haurren arloan adostu diren nazioarteko tresnak kontuan hartuz araudia ezarri zen aztertu zen gomendio horretan. Horrez gain, berriz ere azpimarratu zen oso garrantzitsua dela gure ordenamendu juridikoan (Nazio Batuen 1989ko Konbentzioa, Haurren Eskubideei buruzkoa; uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa; urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa) ageri den adingabearen interes gorenerako eskubidea kontuan hartzea, eta hauxe gomendatu zen berariaz:

Erakunde honen ustez, prestazioak eteteko edo iraungitzeko erabakia hartu aurretik, bizikidetzaren unitateak diru-sarrerarik ez izateak haurren bizitzan izan dezakeen eragina aintzat hartu behar da, eta aztertu behar da, erabakia hartzeko orduan, adingabearen interes gorenari lehentasuna eman ote zaion.

8. Azkenik, erakunde honek **ezinbestekotzat jotzen du familia horiek jasaten duten pobrezia-arriskuari arreta eskaintzea (sentiberagoak baitira eta diru-sarrera baxuagoak baitituzte); bai eta indarkeria matxista dagoen edo egon den testuinguruetan biktimari sistematikoki ordaindu gabeko mantuen-pentsioa erreklamatzeko eskatzearen ondorioz jasaten duen arrisku egoerari era.**

Alde batetik, Emakumeek eta ardurapeko adingabeek osatutako guraso bakarreko familiak pobrezia-egoeren eraginpean daude bereziki, besteak

---

<sup>11</sup> Arartekoaren 2/2015 Gomendio Orokorra, apirilaren 8koa. Politika publikoetan adingabearen interes gorena kontuan hartzeko betebeharra; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sistemari. Eskuragarri hemen: [http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0\\_3662\\_3.pdf](http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_3662_3.pdf)



beste, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak egindako txosten eta diagnostikoetan jasotzen den moduan<sup>12</sup>.

Ez da ahaztu behar bizikidetzaren unitate bati aitortutako diru-sarrerak bermatzeko errentak/etxebizitzarako prestazio osagarriak, gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko 18/2008 Legearen esparruan, gizarte eta lan bazterketa nahiz bazterketa pertsonaleko egoerak arintzea dutela xede; horrekin batera, herritarren gizarte-eskubideak benetan baliatzeko nahikoa gizarte edo ekonomia baliabide eta baliabide pertsonal ez dituzten pertsonak gizarteratzea (1. art.).

Bestalde, erakunde honen ustez, egoera honetan aztertu diren bizikidetzaren unitateak zigor hirukoitza jasotzen dutela: urteetan zehar ez dietelako ordaindu beren seme-alaben mantenu-pentsioa; bizikidetzaren unitatearen oinarriko beharrak bakardadean eta indarkeria matxistaren testuinguruan estali behar izaten dutelako; eta DSBE/EPO prestazioak jasotzeko eskubidea iraungita dutelako, pensio bat gauzatzeko eskaerarik aurkeztu ez dutelako; horrek, gainera, jasandako indarkeria areagotzea ekarri dezake, indarkeria-mailak gora egiten duen heinean erasoak jasateko arriskua ere handiagoa baita.

9. Ondorioz, erakunde honen ustez, guraso eta seme-alaben arteko neurriak gauzatzeko eskaera jarraitua egin izana, eduki ekonomikoko eskubidea baliarazteko baldintzaren interpretazio zabal bat da. 147/2010 Dekretuaren 31.1.a) artikulua arabera, betetzat jotzen du betekizuna behartuta dagoen pertsonaren ez-betetzearen ondorioz dagokion ebazpen judizialaren betearazpen-intzidenteari hasiera eman zaionean, bi hilero betearazpen-eskaerak aurkeztera behartu barik, Lanbideren gaur egungo irizpideek

<sup>12</sup> - Pobreziari eta gizarte desberdintasunei buruzko inkestaren emaitzen txostena (PGDI), 2018: Eskuragarri hemen:

[https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/\\_epds\\_2018/es\\_epds2012/data/Informe%20OEPDS%202018\\_FINAL.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/_epds_2018/es_epds2012/data/Informe%20OEPDS%202018_FINAL.pdf);

- "Gutxieneko errenta jasotzen duten guraso bakarreko familiei buruzko azterketa", Pobreziaren aurkako Borrokarako Europar Sareak (EAPN) egindakoa, 2019.

Eskuragarri hemen:

[https://www.eapn.es/ARCHIVO/documentos/documentos/1568715475\\_estudio-familias-monoparentales.pdf](https://www.eapn.es/ARCHIVO/documentos/documentos/1568715475_estudio-familias-monoparentales.pdf);

- Emakunderen txostena, "Euskadiko gizon eta emakumeen 2018ko zifrak", 112. orri.

Eskuragarri hemen:

[https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/servicio\\_cifras/es\\_emakunde/adjuntos/cifras\\_2018.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/servicio_cifras/es_emakunde/adjuntos/cifras_2018.pdf);

- Emakunderen txostena, "Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa gizarte-bazterketaren eta txirotasunaren esparruan", 2018.

Eskuragarri hemen:

[http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas\\_evaluaciones\\_2/es\\_def/adjuntos/exclusion\\_pobreza\\_es.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_evaluaciones_2/es_def/adjuntos/exclusion_pobreza_es.pdf)



ezartzen duten bezala. Gainera, erreklamatzeko ekintza judizial hori epaia irmoa denetik bost urte igarotzen direnean iraungitzen da; hortaz, erakunde autonomoak, eskubidea ukatu, eten edo iraungi aurretik ekintza judiziala presatzeko beharraz ohartarazi ahalko luke, eta horrek ez dio ekintza judizialari eragingo, indarrean jarraituko baitu.

Ararteko honen ustez guztiz ezinbestekoa da indarkeria matxista egoera eta gurasoak pentsioa ordaindu ez izanaren egoera baloratzea, botere publiko guztiekin bete beharreko eskakizuna baita, Kode Zibilaren 3. artikuluan ezartzen denaren arabera: *“Arauk hitzen berezko zentzuari jarraikiz interpretatuko dira, aplikatu behar diren garaiko testuingurua, aurrekari historikoak nahiz legegintzakoak eta gizarte erreallitatea aintzat hartuta eta, funtsean, haien espiritu eta xedeari jarraikiz”*.

Testuinguru horretan, indarkeria matxistaren biktima bati pentsioa gauzatzeko eskaera Lanbidek ezartzen dituen baldintzetan egiteko eskatzeak, jasandako indarkeria berpiztea eta biktima batere beharrezkoa ez den arrisku-egoeran jartzea besterik ez dakar. Horretaz gain, ez da oso eraginkorra, beste gurasoak dagoeneko eta bere borondatez ez baitu bete bere seme-alaben mantenu-pentsioa ordaintzeko betebeharra. Pentsioak ez ordaintzea saihesteko aurreikusitako neurri guztiek huts egin ostean, ez da bidezkoa biktimari pentsioa erreklamatzeko jarrera aktibo bat izan dezala eskatzea, emakumeak beren erasotzailearekin beharrezkoa ez den harreman- eta liskar-egoeran jartzen baititu. Lanbideren zigorra ekiditeko eta bizikidetzaren unitatea osoaren oinarritzko beharizanak asetzea ahalbidetzen duten prestazioak jasotzeari ez usteko ahalegin horrek, era berean, emakumeen biktimizazio bikoitza eta horientzako arrisku-egoera bat ekar ditzake.

Azaldutako guztiarengatik, Arartekoren ustez, aurretik adierazitako argudio guztiak baloratu beharko liriateke, eskubide ekonomiko bat baliatzeko betebeharra edo baldintza ez dela bete interpretatzerako orduan.

Por todo ello, de conformidad con lo preceptuado en el artículo 11 b) de la Ley 3/1985 de 27 de febrero, por la que se crea y regula esta institución, el Ararteko eleva al Departamento de Empleo y Políticas Sociales la siguiente

## **GOMENDIOA**

1. Bizikidetzaren unitatean genero-indarkeriaren testuinguruan eta "eduki ekonomikoa duen eskubide bat baliarazteko" betekizunaren interpretazioan ordaindu gabeko mantenu-pentsioa betearazteko eskariaren arriskuaren eta eraginkortasunaren arteko oreka haztatu dadila, eta, ildo horretan, berrius





dadila mantenu-pentsioak ez direla ordaindu auzitegietan sistematikoki salatzeke betebeharra.

2. Gizarte zerbitzuekin beharrezkoak diren koordinazio-neurriak jar daitezela martxan, arretaren jarraitutasun-printzipioa betez, genero-ikuspegia txertatuz eta, hala badagokio, ekintza positiboak sortuz, zerbitzu publiko batek adostutako ekintzak, beste batekin koordinatzeko zailtasunak gorabehera, eraginkorrak izan daitezzen.
3. Araudia aldatu dadila, nahikoa baliabide ez dituzten eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak izateko baldintzak betetzen dituzten indarkeria matxistaren biktimak modu eraginkorrean babesteko.

